

Zer berri XVI-XIX. mendeetako agiriak Udalera bueltan
Kultura XIII. kaleko margo lehiaketa domeka honetan

Alpiblean

SORALUZKO
HAMABOSTEKARIA
134. alea, 2006ko
maiatzaren 26an



Kaleak
estutu
zituzten

autonomoentzako eta mikroenpresetarako
doako **mintegiak**

Deba Barrena
ekainak 20
ELGOIBAR
Makina Erremintaren
Institutua (IMH)

Ordutegia:
18:00-20:00

Enpresan denbora eta baliabideak nola banatu

Jakin ezazu zer onura ekar ditzaketen Informazioaren Teknologia Berriek Enpresa Txikien kudeaketan

Gure **denbora** eta enpresako **baliabideak egoki kudeatzeko** modua erakutsiko dizugu. **Koordinatzeko**, gehiegizko lekualdaketak ekiditeko eta baliabideak erabiltzerakoan **denbora eta dirua aurrezteko**, kostu baxuko **soluzioak** (baita doakoak ere) erakutsiko dizkizugu.

Informatzeko eta izena emateko:

943 747 314

www.miramondigital.com

cursos@miramondigital.com

Antolatzailea:



Miramón
Enpresa Digitala


Sustatzaileak:



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa



Ekainaren 3an,
larunbata, 11.00etan,
ikastetxea bisitatzeko
AUKERA



uni@iesunibhi.com / www.iesunibhi.com



Otaola Hiribidea, 29 - 20600 EIBAR
Tel. 943 20 84 44 / Faxe. 943 20 31 96

Ongarai Auzoa - 48260 ERMUA
Tel. 943 17 62 57 / Faxe. 943 17 64 50

Aurrematrikula: ekainaren 1etik 7ra

EIBAR

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- ◆ Administrazio eta Finantzak (EGUNEZ eta GAUEZ)
- ◆ Nazioarteko Merkataritza
- ◆ Gorputz eta Kirol-ekintzen Sustatzea

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- ◆ Administrazio Kudeaketa
- ◆ Merkataritza

ERMUA

- ◆ Telekomunikabide eta Informatika-Sistemak
- ◆ Informatika Aplikazioen Garapena
- ◆ Informatika Sistemen Administrazioa

- ◆ Informatika Sistemen Ustiapena

Berde eta beltzez jantziak, gu bai taldea



AITOR UNAMUNO GANDIAGA

Haizak seme, zergatik ez duk ipurdia sofatik altxa eta kirol piskat egiten? Utzi bakean aita ederki nago eta. Bai ederki nago bai! Ni hire sasoiaren desiatzen egoten ninduan etxe zuloatik irteteko. Herrian ez zen zeregin gehiegi egoten, tabernaz taberna ibiltze-ko gazteegiak omen ginen eta neska-tan egiteko adore gutxi, baina hori bai, astearte eta ostegunero futbol zelaira entrenatzera joateko irrikitan egoten ginen. Koadrila guztia joaten ginduaz, batzuk trebeago, beste batzuk narrasago, futbola larregi atsegin ez zutenak ere etortzen hituan arratsaldea elkarrekin pasatze alde-ra. Haiek bai garaiak! Batez ere euria egiten zuen egunak nituen nik gogoko, baloia putzuetatik atera ezinda ibiltzen ginen. Goitik behera busti arren pozik ibiltzen ginen baloiaren atzetik. Eta asteburuetako partidak! Harmailak jendez lepo, denak gu animatzen, partidu ondorengo kas eta txorizo muturra, ... Beno aita, ez zen hainbesterako izango, aitona dirudi-

BELAR ARTIFIZIALA? ETA ZERGATIK EZ ZUTEN JARRI BA? EZ ZEKIAT BA MOTEL!

zu. Ezetz! Oraindik primeran gogoratzen dut hamabost bat urterekin final hura irabazteko zorian egon ginenekoa. Argazkia nonbait izango duk, berde eta beltzez jantziak, gu bai taldea. Eta non jokatzen zenuten ba aita? Non? Ezoziko futbol zelaian seme, motozaleek urteroko bileran akanpatzen duten lautadan. Oroitzen naiz belar artifiziala jartzekotan ere egon zirela. Guk harrapatu bagenu! Honezkero herritarren bat izango zen lehen mailan jokatzen. Belar artifiziala? Eta zergatik ez zuten jarri ba? Ez zekiat ba motel, urte batzuk proiektuari bueltak ematen pasa ondoren azkenean taldea desagertu zen, eta talde gabe, zertarako halako futbol zelaia. Taldea desagertu! Nolatan? Sinisteko ere, herri erdi eta beste erdiaren semeak taldean ibili eta gero, inor ez zen prest agertu zuzendaritza hartzeko eta badakik. Eta zuk ez zenuen ezer egin aita? Nik! Ni oso gizon lanpetua izan nauk beti, zer uste duk ba!



Argitaratzailea:

Pil-pilean Kultura Elkartea
Frontoi kalea 5. behe, PK 27 - 20590 Sorluze
Telefonoa: 943 75 13 04
comunidad: kzgunea.net/PilPileanKulturaElkartea/EU
E-mail: pilpilean@euskalnet.net

Erredakzio burua:

Egoitz Unamuno
Erredaktoreak: Jon Basauri, Xuban Catalan, Ugaitz Catalan,
Aitor Madrid, Eduardo Pombar, Eneko Beretxinaga, Gorka Salaberria eta Egoitz Unamuno

Publizitatea:

Ugaitz Catalan
Logotipoa: Jon Gabilondo
Banaketa: Pil-pilean Ekoizpena: 1.920 ale
Inprimategia: Gertu Koop
Diseinua eta maketazioa: BOROBILE Zerbitzu Grafikoak
I.Z.K.-a: G20696563 Lege-gordailua: SS-537-2.000

Pil-Pilean Kultura Elkarrekin ez du bere gain hartzen aldi-zikloko esanien eta iritzien erantzunik.

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.



SORLUZEKO
UDALA



EUSKO
JAURLARITZA



GIPUZKOAKO
FORU ALDUNDIA



ERREPORTAIA

Motoristen zaletasuna hobeto ulertzeko asmoz, asteburuan herrian izan diren ekitaldien jarraipena egin dugu, informazio grafikoa motozaleen eritziekin osatuz

Zorion agurrak



Elena eta Santi

Zapatuan ezkonduko dira
Ezozin
Zoriontsuak izan!!
Beti Prest-eko laguen partez



Ibai

Maiatzaren 31an
Zorionak eta ondo pasau
zure egunian ta formal
portau!!
Ama, aita eta Naiaran
partez musuak!!



Galder eta Yeray

Maiatzaren 29xan
Zorionak bihotzak!!
Haritz, Adur, isebak eta
etxekeuen partez.



Idoia Hernandez eta Uxue Ariznabarreta

Maiatzaren 25an, 5 urte
Ekainaren 2xan, 5 urte
Zorionak politak!!



Arnaitz

Ekainaren 7xan
Zorionak eta ondo pasau!!
Santa Anako familixian
partez.

Gutunak

AHT Gelditu! elkarlanak manifestazioa deitu du ekainaren 10ean Donostian

Abiadura Handiko Trenari (AHT) oposizioa erakusten dioten hainbat talde eta erakunderen arteko **AHT GELDITU! Elkarlanak** manifestazioa deitu du **ekainaren 10ean Donostian, arratsaldeko 5:30etan Anoetako estadiotik abiatuta**, Espainiako gobernuak zein Jaurilaritzak "euskal Y"-aren eraikuntza lanak abian jartzeko hartu duten erabaki larriari erantzuteko eta AHTren inposizioak jendartean eragiten duen desadostasun zabala adierazteko.

Euskal gizarte osoari deialdi zabala egiten diogu beraz, "**ARRAZOI GUZTIAK DITUGU: AHT GELDITU!**" lelopean egingo den manifestazio horretan parte hartzeko. Herri mobilizazio indartsua bultzatu behar dugu, ingurugiroan nahiz gizarte arloan hainbeste kalte ekarriko lukeen proiektu suntsizaile hori geldiarazteko Euskal Herrian energia nahikorik badaudela erakusteko.

Gainera, AHTren inposizioa dela eta, egoeraren larritasunak borrokaren eta mobilizazioaren bidez erantzutea eskatzen duelakoan gaude. Obrak hastea onartezina da eta gogor salatzen dugu Espainiako gobernuak eta Jaurilaritzak indarfrogaren hautua egin dutela, AHTren auzian gizartean sortu den eztabaidari eta herri mugimenduari bizkar emanda. Egite kontsumatuen politika ezarri nahi dute berriz ere, herritarrei beste gizarte eta garraio eredu orekatu eta iraunkor baten

oinarriak eztabaidatu eta erabakitzeko inolako aukerarik utzi gabe. Herriaren izenean jarduten dutela esaten dute, baina gehiengo soziala eta sindikala AHTren aurka agertu da. Gauzak horrela, obrak hasten badituzte, ez da inondik inora gatazka luze honen amaiera izango, AHTren aurkako oposizioa areagotu eta erradikalizatuko duen akuilu bat baizik.

Horregatik guztiagatik, AHT GELDITU! Elkarlanean biltzen garen sindikatuek, talde ekologistek, AHTren Aurkako Asanbladak, alderdi politikoeak, udalek eta herri taldeek, ekainaren 10ean Donostian AHT gelditzea eskatzeko egingo den manifestazioan parte hartzeko dei egiten dugu. Behar-beharrezkoa izango da ahalik eta jende gehiena biltzea, AHTren inposaketari behar bezain ozen eta indarrez EZETZ esan diezaiozun, naturarekiko errespetuan eta justizia sozialaren oinarrituko etorkizun baten alde.

AHT GELDITU! ELKARLANA

AUTOBUSA EGONGO DA ARRATSALDEKO 4.00etan GILA ZUBITIK, APUNTATZEKO ARRANON, GAZTELUPEN ETA GAZTETXEAN OSTEGUNA 8 BAINO LEHEN.

Soraluzeko Gazteria,
Soraluzeko Askatasun Haizeak,
Segi eta Pilpilean



Informazio gehiago
900 110 111 doako telefonoan
www.gipuzkoa.net/gazteria
Buletinen harpidetza !!!

Lana

Au-pair Alemaniarako

Elgoibarko Gazte Informazio Gunea.
18 urte eta Alemaniararen oinarritzko ezagutzak izatea eskatzen da.
Bi edo hiru hilabetetarako (denbora gehiagorako izan daiteke familiak horrela uzten badu).
Epea: Lehenbailehen.
Telefonoa: 943 74 14 61.

Zerbitzuen alorreko arduradun bat

Eibarko Udala. Ingeniaritza tekniko eta 3. hizkuntza-eskakizuna eskatzen da. Epea: 2006-05-24.
Telefonoa: 943 70 84 00.

Kontabilitateko teknikaria

Soraluzeko Udala. Diplomaturia izatea edo lehen hiru kurtsoak eginda izatea eskatzen da. 3. Hizkuntza eskakizuna ere bai. Lehiaketa-oposizio bitartez egingo da aukeraketa. Epea: 2006-06-06. Tfnoa.: 943 75 30 43.

Udaltzain postu bat

Beasaingo Udala. Epea: 2006-06-06.
Telefonoa: 943 02 80 50.

Ekintzak

"Oporrak bakean 2006"

Donostiako Udala. Haur saharrek uztaila eta abuztuan familietan oporrek egiteko programa.
Epea: 2006-07-01.
Tfnoa.: 943 48 14 71.

Lehiaketak

Kirol argazkien lehiaketa

Elgoibarko Udala. Edozeinek har dezake parte. Gaia: kirola arlo guztiak.
Epea: 2006-07-21.
Telefonoa: 943 74 44 15

Jaiotakoak

• NAROA ROS GIL

Zer irizten dotsazu?

Badira dagoeneko hainbat hilabete soraluzetar gazte batzuk Maisuen Etxeko (Frontoiko etxeetan) pisu bat okupatu zutela. Etxea hutsik egon da urte dexentetan baina Udalak etxea husteko eskatu die gazteei, "Emergentziazko etxebizitzak" egiteko.

Ze iritzi daukazu okupaziñuan inguruan?



Jose Mari Ron
54 urte, tornillerua

Nik uste dot Plaentxian kasuan independente izateko ixa aukera bakarra dala, ze dana dao karu. Gainera etxiak hutsik baldin badare...



Cecilia Romero
40 urte, etxeoandria

Nora jua ez baldin badauke, ze soluziño dago? Gainera danon eskubidia da etxebizitza bat eukitzia, beraz ondo pentsatzen jata. Hainbeste etxe huts egonda eta hain garestixak...



Gregorio Uribe, Sinatra
47 urte, tabernarixa

Oso ondo pentsatzen jata, hainbeste etxe hutsik egonda eta jente pilia etxe barik. Baina udaletxian jarrerria tamalgarrixa da, zetarako hustu bihar dittue etxe horrek? Gainera herriko jentia da bertan daguana!!



Loli Ayora
41 urte, langabetua

Etixerik ez badauke ondo pentsatzen jata, nunbaiten bizi biharko dira. Nik uste dot soluziñua etxiak merkiago jartzian daguala, ze hola-ko prezixuekin...



Mikel Ostolaza
34 urte, tekniko instaladoria

Ondo pentsatzen jata. Ikusitta zelako bizimodua dagan, gaziok ez dakagu beste baliabiderik. Dagan sistema honek hortara bultzatzen gaittu. Azkenian, gurasuen etxetik urten eta bankuen menpe ez bizitzeko aukeria da.



Ines Laskurain
17 urte, ikaslia

Edarki pentsatzen jata. Gainera hola etxe hutsak aprobetxatzen dira. Eta udaletxiak ez badau ezetarako bihar, ze ardura da?

Juan Mari
Arraindegia

Eguneroko arraina eta konjelatuak




Merkatu Plaza
20590 Soraluze
Tfnoa 943 75 24 40
Partikularra 943 74 03 69

GAZTELUPE
taberna



tel: 943 75 20 81



Alkateek ostegunean sinatu zuten hitzarmena ,Bergako Udalaren esku zeuden eskribautzen dokumentuak Soraluzeko, Eibarko eta Mutrikuko Udalei bueltatzeko

Eskribautzen dokumentazioa bueltatu diote Udalari

XVI. mendetik XIX. mendera bitarteko eskribautzen edo notarien dokumentazioa berreskuratu dute egunotan Soraluzeko, Eibarko eta Mutrikuko Udalak, 40. hamarkadaz geroztik Bergarako Udal artxiboetan zegoena. Soraluzeko Udalak, guztira, 1.499 espediente berreskuratu ditu, 1539 eta 1849 urteen bitartean eskribauek idatzitakoak. Mutrikuko Udalak 1.427 espediente berreskuratu ditu, 1512 eta 1862 urteen bitartekoak eta Eibarko Udalak 3.477, 1537 eta 1866 urteen artekoak. Eskribauak edo notarioak, XIX. mendera arte fede publikoa ematen zutenak ziren, bai auzietan

eta baita kanpoan ere. Horren ondorioz, eurak baimendutako agiriak kautotuta edo autentikatuta gertzen ziren eta agiri horien edukia egiazat hartzen zen. XIX. mendera arte, Alkatea izaten zen epailea herrian-Frantziako iraultzaren ondorioz European botereen banaketa ezarri zen arte-, eta auzietako idazkari lanak eskribauek egiten zituzten. Dokumentazio hori udal agiriak dira. Jabier Elorza herriko historialariak dokumentazio honen balioa azpimarratu dueta "herriko toponimia, urbanistika eta patrimonio industrialia hobeto ezagutzen lagunduko digu"-la esan du.

Udalak ez du "jai egitarau paralelorik" subentzionatuko

Maiatzaren 18an egin zen Jai Batzordean, Udaleko ordezkariak adierazi zuten aurten ez dela dirulaguntzarik izango "jai egitarau paraleoendako". Egitarauari dagokionez, segurutzat eman zen, besteak beste, zezena izango dela, Plaza Zaharrean, eta idi probak Gila zubian. Uztailearen 22an izango da txupinazoa. Tabernariak kezka agertu zuten iaz "jente gutxi" ibili zelako. Egitaraua osatzeko proposamenak 24ra arte egin zitezkeen.



1960an jaiotako bazkaria

1960 ko kintoek bazkaria izango dute ekainaren 17an Txurruka jatetxean. Interesatuak ekainaren 12a baino lehenago eman beharko dute izena 943751581 telefono zenbakira deituz.

 **PASCUAL CHURRUGA, S.A.**

Hotzian eta beruan
jotako tornilluak

Telef. 943750006 eta 943751600 Faxa 943752461
E-mail: general@pascualchurruga.com
Errekalde 21 20590 SORALUZE

GILA TABERNA

Goizeko 6:30-etatik aurrera zabalik

Gosarixak eta
pintxo
goxo goxuak !!



Errabal kalea 15, Tfnoa 943 75 18 34

Javier Alonso Zelaieta
K. Z. 20.000.434
Nora Bastida Etxeberria
K. Z. 20.000.736



HORTZ KLINIKA
Errabal 1 - Barrenekoa 2 • Tel. 943 75 16 13

Telefonia 75 24 09

ARRANO
tabernia

"Giro euskalduna eta sanua"

ETORRI ETA GOZATU

 **etxera**
EUSKAL PRESO, DEPORTATU ETA EKILATUAK

Moyuak ez ditu egingo Erregetxeko aparkalekuak

Egunotan jakin da Moyua eraikuntza enpresak bertan behera laga duela Erregetxeko lurrazpiko aparkalekuak egiteko proiektua. Garage a kontzesio bidez erosteko asmoa agertu eta fiantza ordaindu zutenei gutun bat igorri diete Moyua enpresako arduradunek joan den astean, jarri zuten fiantza bueltatuko zaiela esanez. Enpresako arduradunak ez diete oraindik azalpenik eman Uda-

leko ordezkariari, eta hauek, erabakiaren zergatia azaltzen duen in-forme bat egiteko eskatu diote Moyuari. Proiektuan, 135 garage plaza egitea aurreikusten zen, 50 urterako kontzesio bidez esleituko zirenak. Oposizioko alderdiek ez zuten begi onez ikusi proiektua eta herritarren artean ere ugari izan ziren proiektuaren aurka batu ziren sinadurak.

Zapatuan manifestazioa okupazioaren alde

Zapatu honetan arratsaldeko 19etan manifestazioa egingo da okupazioaren alde. Deialdia Maisuen etxe-ko bigarren solairuko pisuan bizi diren bizilagunek deitu dute. Hiru hilabete inguru dira herriko hiru gazte hutsik zegoen pisu horretan bizitzera sartu zirela Hilabeteotan konponketa lanak egin dituzte eta pisua bizi izateko moduan egokitu dute. Orain Udalak etxea uzteko eskatu die eta horren aurrean gazteek

etxebizitza eskubidea aldarrikatu eta bertan jarraitzeko asmoa adierazi dute. Bizilagunek kaleratu duten idatzian adierazi dutenez, etxebizitza horiek urtetan egon dira hutsik eta ez dute ulertzen zergatik erabaki duen Udalak orain, "justu gu sartu garenean eta sartu garen pisuan "emergentziazko etxebizitzak" egitea. Hori dela eta herritarren babesarekin eskatzeko manifestazioa deitzea erabaki dute.



Guraso eta seme-alabendako irteera

Atxolin guraso elkarteak familiei zuzenduriko txangoa antolatu du Ekainaren 10erako, larunbata. Azpeitiko trenaren museoan, Urolako trena, Dinosaurioen frontoia eta Lasturreko errota bisitatuko dituzte, besteak beste. Izena ekainaren 2 a baino lehenago eman beharko da, Atxolinek kutxan duen kontuan diru sarrera eginez: 6,50 bazkideek eta 12,50 bazkide ez direnek.

Amodio gutunak ekainaren 17ra arte

Ekainaren 17ra arte zabalik egongo da Soraluze VI. Amodio Gutunen Leihaketan gutunak aurkezteko epea. Lanak, herriko tabernetan ipiniko diren buzoietan sartu edota 27. posta kutxatilara bidali beharko dira; batean aurkeztuko dira, egilearen izenik jarri gabe, goitizena batekin. Lanari erantsitako batean, azalean, lanaren izenburua eta egilearen goitizena jarriko dira bistan. Barruan, egilearen datuen berri emango da: izen abizenak, helbidea eta telefono zenbakia. Parte hartzailea hamairu urtetik gorako edozein idazle izan daiteke. Sariak 150,100 eta 50 eurkoak izango dira.



2006ko maiatzaren 20an hil zen, Deban, 44 urte zituela

DORLETA BEGIL PEREZ *Goian bego*

"Momentu mingarri hauetan euren maitasuna eta laguntza eman diguten guztiak eskertu nahi ditugu"



MENDIZABAL

OKINDEGIA

Kalebarren, 10
Telefona 943 75 20 91
Baltegieta, 6
Telefona 943 75 13 99
SORALUZE

Lakuesta

Optika 

Ikusmen arazoaren frogak eta argibideak

Argazkiak errebelatzen ditugu

Santa Ana, 22 C- behea
20590 Soraluze
Tfnoa 943 75 30 59




Motoclub Plaentxik antolatuta, asteburu osoko Motor kontzentrazioa izan genuan herrian pasa den asteburuan. Zapatu eta domekan, 200 motozale baino gehiago hurbildu ziren Plazentziara eta herriari estetika beltza, narru usaina, motor hotsa eta bizitasuna erantsi zioten. Motozaleen zaletasuna hobeto ezagutzeko asmoz, asteburuko ekitaldien jarraipena egin dugu, bai eta zenbait motozaleri elkarrizketa egin ere

Motor maitaleen asteburua

AUTO TXIKIEN ERAKUSTALDIA

Auto txikiendako zirkuito txiki bat jarri zen frontoian. 90 km/h hartzera iristen dira makina txiki hauek



JENTE ASKO TRIALSINEAN

Jente asko egon zen zapatu arratsaldean Plaza Barrira, Lezeta eta Gomezen trialsin ikuskizunean



PLAZA BARRIKO PERFORMANCEA

Dantzariak ez zuten lortu Plaza Barriko giro hotza berotzerik. Streptasea nahi zuen jentek



DANOK MOTORRERI BEGIRA

Plaza Zahar ingurua motorrez bete zen domeka eguerdian. Adi-adi begiratzen zituzten askok





ITZIAR, MARIJE eta JUANI,
Motoclub Plaentxiko antolatzaileak

Motoclubeko hiru neska hauek oso pozik agertu dira joan berri den asteburuko kontzentrazioarekin. 200 motozalek eman dute izena eta adierazi digutenez “gehiago ere ibili dira”. Asteburuko ekitaldien artean trialsin erakusketa eta igandeko ibilaldia aipatu dituzte, “oso jendetsuak eta ikusgarriak” izan zirelako. Ekitaldirik “sosoena” berriz, Plaza Berriko performancea. Motozale gehienak hemen ingurukoak izan omen dira, hala ere urrunagotik etorri dira: Salamanca, Valladolid, Santander, Burgos eta Nafarroatik, esate baterako. Datorren urtean berriz itzuliko direla adierazi diete eta pozik daude motoclubekoak. Udalari, tabernei eta komertzioei eskerrona emanez, datorren urtean bigarren kontzentrazioa egingo dutela agindu dute.



RAUL, ENRIQUE, AITOR eta DORLETA

Futbol zelaian egin dute lo Barakaldo, Durango eta Gasteiztik etorritako motorzale hauek. Beteranoenak, Enriquek, duela 30 urte erosi zuen bere lehenengo motorra eta oraingoa hamargarrena du. Motorrari mimo asko egiten dizkiola aitortu digu: “txapuzillaren bat eguneroko egiten diot eta motorraren puntu jakin batzuk diztiratsu ikusi arte ez naiz gainean montatzen”. Raulentzat motorrak ez dauka



JON eibartarra eta MIGUEL bergararra

Argazkirako elkartu ditugu eibartar eta bergarar hau. Zapatu arratsaldean etorri ziren, “ambientillora” Miguelen esanetan eta domekan errepikatu egin zuten, ibilaldia egin eta bazkaltzera. “giroan parte hartu, motorrak ikusi eta juerga egitearren etorri nintzen”, esan digu Jonek. “Zaletasun berdina duen jentearekin elkartzea ondo dago. Errepidean beti agurtzen diogu elkarri eta hori gauza polita da”. Motorra “kapritxoa” da Miguelendako, “ez da beharrezkoa, autoa bezala”. Istripueri dagokienez, 2 motorzale klase dagoela adierazi digute: erori direnak eta eroriko direnak.

zerikusirik autoarekin. “Motorra, gozatzea nahi duzunean hartzen duzu; autoa, berriz, lanera joan beharra daukazunean.” Autoa edo motorra gidatzean sentitzen dena oso desberdina da bere esanetan: “motor gainean derrapeak asko nabaritzen dira eta bihurgune batean ondo sartzen zarenean satisfakzioa oso handia hartzen da”. Gasteizko bikoteak motorraren abantailak aipatu ditu: “karabanarik ez dago motozaleentzako eta aparkatzeko arazorik ere ez. Gozada bat da.”



JOSEBA TXABARRI
Mallabitik

Eibartik eta Mallabitik 11 laguneko talde batean etorri da Joseba, bere Suzuki Merauderrean. “Danok batera” taldean joatea gustatzen zaio gehien. “Ez dago lehiaketarik. Zure motorra luzitzaera zoaz, erakustera, eta errepideko heroia sentitzen zara momentu horretan. Gainerantzean oso umilla naiz.”. Askatasun sentazioa ematen dio motorrak eibartarrari. “Makina bat daramazula eta hegan egin behar duzula iruditzen zaitzu”. Hala ere, errepidean kontu handiz ibili beharra dagoela adierazi du: “motorra ez da jostailu bat, bi errubera besterik ez dira eta jo ta bertan hil zaitezke. Buzur argia eta lasaia izan beharra dago”



RUBEN DIAZ,
Iruñeatik

Iruñean bizi den poeta euskaldunberri Tafallar honek ere futbol zelaian egin du lo, zapatu gauean” bizpauru kubalibre” hartu eta gero. “Lehenengo aldia da herri honetara natorrela. Mendietako berdea zikina dago, baiña oso polita da. Hemendik zeru zati txiki-txiki bat ikusi ahal duzu, egunero egunero zeru zati txiki-txiki bat bakarrik. Horrek eragina dauka zuengan”.

Motorrarekiko pasio haundirik ez daukala aitortu digu Rubenek. “2 gurpil eta gasolina sartzeko zulo bat: horixe da motorra. Nireak sari bat dauka, motorrik kutrearenarena; ez dut inoiz garbitzen. Motorrean motel ibiltzen naiz, bildurrez, baina askatasuna sentitzen dut eta gustatzen zait” Motordun batzuen gehiegizko zaletasuna ez du ulertzen baina motorzaleen artean lagun onak egin dituela esan digu. “gilipollasa izan behar da pixkat, primerako trajea eukitzea etabar... baina motozaleen artean primerako jentea ezagutu dut, interesgarria.”



Margo lehiaketa domekan

Domeka honetan, hilak 28, XIII. margo lehiaketa ospatuko da Sorraluzeko kaleetan. Bertan parte hartu ahal izateko izen-ematea Udaletxeko Zinegotzi Gelan egingo da domekan bertan, goizeko 9etatik 10etara. Parte-hartzea libre izango da baina bakoitzak bere lanak burutzeko material eta tresna guztiak eraman beharko ditu. Lehiaketak 2 maila izango ditu: A maila, umeena (14 urte arte-

koa) eta B maila, helduena (14 urtetik gora). Irabazleen izenak domeka arratsaldean jakingo dira, arratsaldeko 6etan eta ondoren sari banaketa egingo da erakusketa gelan. Lehiaketara aurkeztutako lanak ikusgai egongo dira Kiroldegiko erakusketa gelan ekainaren 3^a bitartean, arratsaldeko 7etatik 8:30etara astelehentik ostiralera eta eguerdiko 12:00etatik 13:30etara zapatuetan.



PLAZATIK GAZTETXERA txapelketako kanporaketan Jokin Labaien arrasatearra irabazi zuen. Giro bikaina izan zen saio osoan zehar.

Abesbatza Santo Domingo de la Calzadara

Ezoziko Ama Abesbatzak kontzertu berri bat eskeiniko du ekainaren 3an, Santo Domingo de la Calzadan, Errioxan. Kantaldia iluntziko 9etan hasiko da Aveniada zinema teatroan.

Sendabelarren ikastaroa

Datorren ekainaren 17an sendabelarren ikastaroa egingo da San Andresko lokal sozialean. Ikastaroan golpe eta zaiendako bi ukendu egiten erakutsiko dute herriko bi lagunek. Izen ematea, Pilpileanera deituta edo pilpikultura@euskalerrria.org helbide elektronikora idatzita egin daiteke. Aurretik izena emana duten pertsonak ez dute berriz eman beharrik izango.

Ibilaldirako autobusa domeka honetan

Domeka honetan Elorrixon ospatuko den Ibilaldira joateko autobusa jarri du Pilpilean Kultura Elkarteak. Irteera goizeko 9:30etan izango da Gila Zubian eta buelta arratsaldeko 8etan Elorrion. Bidaiaaren prezioa 7 eurokoa da.

Haurren Euskal Jaia Ekainaren 4an

ZEkainaren 4an, domeka, XXXI. Haurren Euskal Jaia ospatuko da eta 100 dantzariatik gora etorriko dira Plazentziara. Hori dela eta, antolaketa lanetan diharduen Euskal jai Batzordeak eskaera berezi bat egin die herritarrei etxean dantzariak har ditzaten. Iratxo Goxodendan egin daiteke hori. Gastuei aurre egitko dirulaguntzak ere onartuko dira.

MENDATA taberna

Pizzak • Bokadilloak • **Sukaldetik zure etxera!!** • Kazuelitik • Razioak

ostirala 08:30 - 22:30
larunbata 08:30 - 22:30
lgandea 08:30 - 22:00

Tel.: 943 75 13 87

HNOS. BENITO ANAIK

ETXEKO ETA SUKALDEKO ALTZARIAK

Eskatu presupuesto konpromisorik gabe

Santa Ana, 26 • Tel. y Fax (943) 75 20 47 • 20590 SORALUZE-PLACENCIA (Gipuzkoa)



Debabarreneko udalak euskararen normalizazioa lortzeko estrategikoa den arloan, lan munduan, euskararen erabilera normalizatzeko plana prestatu dute. Debabarreneko 6 herri daude plan horretan,: Soraluze, Eibar, Elgoibar, Mendaro, Deba eta Mutriku. Planaren jarraipena egiteko Jarraipen Batzordean; agintariak, euskara teknikariak, sindikatuak, Debegesa eta euskara plana duten enpresetako ordezkariak (Danobat eta Tekniker esaterako) parte hartzen dute.

Euskara enpresetara!

Debabarreneko enpresei euskara planak garatzeko aukera eskainiko zaie.

5

enpresa bisitatuko dira Soraluzen: euskara planak aurkeztu eta proposamen zehatzak egingo zaizkie.

Dirulaguntzak

2 diru laguntza mota izango dituzte enpresek:
Udalarenak eta Jaurlaritzak ematen dituenak.

Empresan

3 arlo nagusitan eragingo da; euskara, kalitatea eta bezeroak. Horretarako euskararen erabilera normalizatzeko planak diseinatu eta inplementatuko dira.

Zergatik euskara plana enpresan?

Planaren bultzatzaileak

“Guk euskara plan asko diseinatu eta inplementatu dogu eta euskara plana martxan jarritako enpresa horietan ikusi dogu euskara gehiago erabiltzen dela, langileen satisfakzioak be, gora egiten duela, bezeroak gusturago daudela, zerbitzuaren kalitatea handiagoa dela, ... Zeinek ez du nahi hori bere enpresarako?”

Maite Etxeberria, EMUN aholkularitzako teknikaria

“Administrazioak herritarrari euskaraz bizitzen lagunduko dion ingurunea antolatu behar du, eskolaren ahalegin horrek jarraipena izan dezan eta indartua gera dadin. Horregatik da garrantzizkoa hizkuntza normalizatzeko ahalegina enpresara ere zabaltzea, erakusteko posible dela lanaren arloan ere eguneroko bizitza euskaraz egitea.”

Mikel Leunda, Udaleko Euskara Teknikaria

“Komeni da euskararen erabilera darian normalizatzea, baita enpresetan be. Izan be, familixatik kanpo egitten doguzen ordurik gehixenak tailer edo ofiziñan egitten doguz. Uste dot lortuko bagendu enpresa mundu hori euskalduntzia, euskeria normalizatzeko lanan zati haundixa eginda eukiko gendukela.”

Maite Oregi, Udaleko Euskara Batzordeburua

GURE ZERBITZUAK

- Ortodontzia ikustezina
- Inplanteak

ELIZPE

Hortz Klinika

- ✓ DOANEKO BERRIKUSKETAK
- ✓ FINANTZAKETA ZURE NEURRIRA
- ✓ KONPROMISURIK GABEKO AURREKONTUA

ETA ORAIN... LAGUN ARO, PADI (HAURREN ARRETARAKO HORTZ PROGRAMA)

Elizburu 3, behea • SORALUZE • Tel. 943 75 25 67

MABE

ILEAPAINDEGIA

- | ESTETIKA
- | SOLARIUM

Errabal kalea 1, behea
Tel.: 943 75 14 89
20590 SORALUZE



Futbito Txapelketa hastear da

Ekainaren 2an eta 3an jokatu da futbito txapelketako lehenengo jardunaldia. Aurten 10 taldek eman dute izena txapelketan, eta 5eko bi talde osatu dira. Ostiralean, ekainak 2, neurketa hauek izango dira ikusgai kiroldegiko frontoian: Tornilleria De-

ba-Fronton Team (20:00etan) eta Torpedos-Babajana (21:00etan). Zapatuan, berriz, iaz finalista izan ziren Artifices taldeak (argazkian) Bandera Traporen kontra arituko da 20:00etan, eta 21:00etan Gaztetxea Guri-Guriren kontra.

Euskal Derbya ekainak 3an

Ekainak 3an, zapatua, Soralezeko Atheltick eta Errealzaleen arteko IX. derbya jokatu da Ezoziko futbol zelaietan, arratsaldeko 4:30etan. Aurtengo derbi berezia izango da, Eitzako Oier bezala, paralisi zerebrala duten pertsonen aldekoa. Partidua hasieran sinadurak batuko dira gobernuari gaitxo hauen aldeko laguntzak eskatzeko.

Bolo txapelketa azken txanpan

3 jardunaldi besterik ez dira falta Gipuzkoako hiru txirlo bolo txapelketa bukatzeko. Aurtengo edizioan plazentziatarrak dotore ari dira: Iñaki "Arritxa", Bittor eta "Txiki" Núñez 12,13, eta 14. postuan daude sailkatuta 15 txirlorekin 60 parte hartzaileen artean.

EMAITZAK

ESKU PILOTA

LASKURAIN, Derion	
• Larralde - Laskurain	22
• Galarza - Urberuaga	19
JAUREGI, Usurbilen	
• Erroizenea - Jauregi	22
• Errasti anaiak	10
ATXOTEGI, Bergaran	
• Oyo - Etxeberria	22
• Atxotegi - Beroiz	7
Itziarren	
• Iragi	22
• Atxotegi	17

HERRIKO PELOTA TXAPELKETA

• Aitor Fernandez - Koldo Heriz	22
• Berdaitz - Iraultz	16
• Gorka Varela - Gorka Bollar	22
• Aitor Fernandez - Koldo Heriz	18
• Eneko Trebiño - Anartz Lasa	22
• Berdaitz - Iraultz	16
• Txapel - Limoi	22
• Nagore - Eneko Beretxinaga	8
• Beñat Catalan - Jon Gallastegi	22
• Ekaitz Uzin - Elosua	10
• Jon Arrieta - Asier Fernandez	22
• Gorka Moya - Aitor Beretxinaga	9

FUTBOLA

Sora (erreg)1 - Tolosa B 2

AGENDA

MENDI IRTEERA

Maiatzak 28, domekan
Mandale mendira (573 m.) irteera, Biriatu - Ibardin mendatean.

IRATXO GOXOTEGIA

EGUNKARIA
ETXERA ERAMATEN DIZUGU
GEHIAGO ORDAINDU GABE

ETXABURUETA, 4
20590 SORALUZE
tlf: 943 75 13 20

- Bizkarreko mina
- Esginzeak
- Tendinitisak
- Masajeak
- Erreuma
- Etxetara fisioterapia
- Istripu ondorengo errehabilitazioa
- Kirol osteko errehabilitazioa



Unai Ormazabal Iraola
Kolegiatu Zerbakia 947

Altos Hornos Industrialdea • Telleria, 6 bis - Of.11 • BERGARA
Tel. 943 76 53 35 / 626 900 608 • ormazabalfisioterapia@yahoo.es

ARMENDIA JATETXEA

Ezoz Auzoa, 11
20590 Soraluze
Tfnoa 943 75 10 02

Sukaldaritza tradizionala



Diseinua eta Sormena

Polígono Amillaga, nº 5
Tlf.: 943 76 99 85
20570 **BERGARA** (Gipuzkoa)
Fax.: 943 76 05 17

Altzairuen fabrikazioa:

- Bainugelak
- Sukaldeak
- Horma-armairuak
- Barruko altzairuak

DJ Gordy, Alex Losada

Espainia mailan saritua musika progresiboaren alorrean

Maiatzaren 11n Valentzian izan zen Alex Losada "DJ Gordy" plazentziatarra, DJ 1 aldizkariak musika elektronikoa pintxatzen duten DJ onenei ematen dizkieten sarietako bat jasotzen.



BERTSO BEGIZ

*Diskoteketan urrun naiz gertu
zenbat lantegi desberdin
hemen eta han aritzen zara
festa bukatu ez dedin
Guztiak dantzan jartzen dituzu, jentia dago zurekin;
sarixak ere atara dozuz
beraien botuarekin ezin da hobeto egin!*

NEKO

Doinua: saltarina da txepetxa

Nola heldu zara sari hau jasotzera?

Lehenengo, DJ 1 aldizkarixan izendatu egin ninduen musika progresibuan DJ onenaren sarixa jasotzeko. Ondoren, publikuak (diskoteketan dabilen jentia) ordenadore bitartez emoten zeban botua eta ni aukeratu ninduen.

DJ ezaguna zara orduan...

Abuztura arte fetxa guztiak hartuta dakara. Pentsatzen dot aldizkariak sarixen berri emoten dabenian, ekaineko alian, leku gehixagotik deitukostela.

Nungo diskoteketan pintxatzen dozu?

Hilian bi asteburutan NON diskotekan, Lemoan. Beste asteburuetan Espainiatik zihar: Torreviejan, Madri-

den, Riojan, Sorian, Zaragozan, iparralde guztian...

Inprobisau egiten dozu edo oinarri bat dakazu?

Nik dana egiten dot ikusixan bistan. Publikuagan ikusten dot beti zer pintxatzera noian

Diskuak be etaratzen dituzu?

Urtian 2 edo 3 argitaratzen ditut. Azkenengua oin dala hilabete: Carpe Diem II, Wiggle It Records nik sortutako azpizigiluakin. Lehen Baserri

Records nekan, eta harekin etara neban Soraluze diskua.

Zela sortzen dozu musikia?

Ordenadore bitartez. Urtian 2 edo 3 tema sortzen ditut. Musika progresiva melodiak dira. Oin asko entzuten dan bumbing estiluakin nahasten dogu.

Proiektu berririk begibistan?

Aurki beste disko berri bat etarako dot, Naroy izenekua, eta harekin nabil zentrauta.

"Publikuagan ikusten dot beti zer pintxatzera noian"



Karta enkarguz, jaunartzeak eta bataioak

EDURTZA Kafetegia
Taberna eta jatetxe zerbitzua

Telf. 943 75 13 83 Santa Ana Soraluze



SAN ANDRES
Iturgintza

*Iturgintza, Gasa, eta Berogailuak
Sukaldeak eta bainuak*

Errebal kalea 2 behea
Tfnoa 943 75 16 46



Iturria: Maribel Sebal Agirre.

1969ko medallista eguna

Mendizale kuadrila hau Ezozin elkartu zen 1969an, Sociedad deportibak antolatutako finalista egunean:

Behe-behian: Dorleta (+) eta Marian Begil, Jose Ramon Zabala, Periko eta Sabin Perez de Labeaga, Beretxinaga, Primitibo Etxeberria, Arrate Basauri.

Behian: Jose Luis Mendizabal, Sergio Zabala, Jabier Albisua, Santos Elizburu, Jose Luis Arizaga, Jabier Larreategi, Jabier Perez de Labeaga, Juan Luis Larrañaga, Aitor Amor, Xabier Otal, (neska ezezaguna), Aitor Iriondo, Jose Francisco Zabala, Ramon Artolazabal, Salazar (Gasteiztarra), Juan Ignacio Zabala eta Jose Berrueta.

Goian: (6 mutiko ezezagun), Jose, Jokin eta Arantxa Olamusu, (neska ezezaguna), M^a Elena Plazaola, Angelita Albisua, Carmelo Merino, Itsaso, Daniel Ballesteros eta ezezagunak.

Lehiaketa

San Ignacio bandia...

Aurreko aleko erantzuna

1910ean sortu zeben Plazentziako karlistak San Ignacio Bandia. Soraluzen eta inguruetako herrixetan jo zeban 1963. urtian desagertu zan arte. Karlisten bandia sortu zan garai beretsuan liberalak "Paz y labor" bandia sortu zeben. Aurreko mendeko gerriak ekarri zeban karlista eta liberalen arteko banaketa hori.

HERRIAREN HISTORIA

GALDERA

Ze kiroletan egin zan ezagun Julian Arana "Plazentziako tigria"?

- Zesta puntan
- Krossetan
- Txirrindularitzan

Aukeratu erantzun zuzena.

Deitu **943 75 13 04 ra** edo e-mail bat bidal ezazu:

pilpilean@euskalnet.net



Mutua General de Seguros

Loli Nieves García

Santa Ana, 13 • SORALUZE
Tel. 943 75 14 57 - 646 522 659
E-mail: mdnievas@mg.es

SARIA



Norberarendako aseguru bat.

SARIA
Fisioterapia saio bat
Gogortuz Zentroan

AURREKO ALEKO
IRABAZLEA
Martin Azkarate



Etñabe Harategia



Euskal txahalkia
Bildotsa

Merkatu Plaza 6-7 Postuak Telef. 943752375



kutxa

gizarte ekintza



Ugaraxo

2006ko maiatza



Danok bertsolari !!





Kaixo lagunok:

Plaentxin, 2006ko maiatzaren 12an

Berriz hemen gaude 4urteko gelakoak, istori berriak zuei kontatzeko.

Udaberria dela eta "Tulipan txikia" ren ipuina antzetzu genuen. Lehenengo bakoitzak gure ipuina egin eta liburuaren egunean beste gelakoei aurkeztu eta ondoren etxera eraman genuen. Oso ondo ikasi genuen eta hurrezkuntzako beste gelakoei izugarri gustatu zitzaizen gure antzerki saioa.

Zuen belarriak alaitzeko hemen doa gure abestia.

UDABERRIAN ABIATU NINTZEN

Udaberrian abiatu nintzen

Dama gazte baten bila,

Atea kaxkax-kaxkax jo nuen baina

Ez zidaten erantzuten.

Lalalarala...


Dama gaztea leihora atera eta

Galaia zer nahi zenduke,

Gu bion borondatea balitz

Zurekin egon nahi nuke.

Lalalarala...



TXIKI - INKESTA

Jokin Oregiren antzezlanak ikusten izan zintaten Eibarren?
Zela gogoratzen duzu? Zer gustatu jatzun gehixen?

ALEJANDRA RODRIGUEZ, 8 URTE

Robin Hood gustau jatan arkuakin ibiltzen zalako eta oso ona zalako. Robin umia, kartzelan sartuko zebe bildurrez, jua egin zan eta egunak eta egunak kanpua in ostian etxera bueltau zan



MARTA OTERO, 9 URTE

Gustau jatan istorixia zela idazten zeban Robin muti-kuak, mendira iges in zeban-ian. Zela lagundu zotsan beran herrixari beran ama salbatzen eta gaiztuen aurka burrukatzen.



MIKEL RECIO, 9 URTE

Gustau jatan Robin Hoodek burrukan egin zeban-ian erregian kontra, bestela beran ama hil bihar zebe eta. Txontxongiluak zela-kuak ziran be asko guatau jatan, oso ondo zerren eginda.



EDURNE PROL, 8 URTE

Mutiko bat deitzen zan Robin eta batzuk esaten zebe bera zala Robin Hood, izen berdina zekalako eta ez zan bera. Azkenian jentiak sinistu zeban bera ez zala benetako Robin Hood.



OUSSAMA HINA, 9 URTE

Robin Hood gustau jatan oso trebia dalako gezixak botatzen. Robin Hood beran ama askatzera jua zanian gustau jatan, etsaiak beran ama harrapau eta eruan egin zebe eta.




JOSEBA MENDIZABAL, 8 URTE

Robinek egin zebana gustau jatan gehixen. Egin zeban lagun bat eta jua ziran Robinen ama salbatzera, erregian menpian zeguana. Robin beti egoten zan idazten, gogoratzen dot.



Denborapasa egilerik onenak!!





Bertsolaritza Plaentxi Herri Ikastetxean

Aurtengo ikasturtean, lehenengo aldiz, Plaentxi L.H.I.a beste eskola batzurekin batera eta Gipuzkoako Bertsozale Elkarteak zuzenduta, bertsolaritzako proiektu barruan sartu gara.

Proiektu honetan laugarren mailako ikasleek hartu dugu parte. Horretarako hamabost egunetik behin elkarteko irakasle bat etorri izan da eta hurrengoko astean andereñoarekin aritu izan gara. Oso ondo pasatu dugu. Bertso asko ikasi ditugu eta bertsoak egiten ere ikasi dugu.

Hemen daukazue guk egindako lanaren muestra bat.

EA GUSTATZEN ZAIKIZUEN!

Hona hemen guk sortutako zenbait bertso:

NATURARI BURUZKOAK

Belarrez ta loreez
nolako zelaia
menditontorrean dago
bai, kriston paisaia.

Mendira joaten gara
oso pozik ta alai
Karakate mendia
gustoko dugu bai.

Guzti-guztia dago
zikin ta zatarra
natura zaintzea
da gure beharra.

Mendian dagoen lora
lurretik ez hartu
natura zaindu eta
baita errespetatu.

Itsasoan bai daude
gure arrantzaleak
eta uretan berriz
bai gure balea.

Zikina iristen da
erreka herrira
ez dugu ezer botako
gure errekarra.

Doinua: Ikusi nuenean

JAIXEI BURUZKOAK

Gure herrian dira
festa bai alaiak
hemen ospatzen dira
Santanako jaiak.

Soraluzen bakarrik
jaiarik zoroenak
jaietan beti dira
onenak zezenak.

Gu beti ibiltzen gara
alai barraketan
pozik ibiltzen gara
herriko jaietan.

Uztailan guk ditugu
festa bikainenak
ta gustatzen zaizkigu
benetan zezenak.

Jaietan dibertitu
hitzezin euskaraz
jaiak politak dira
batez ere San Blas.

San Blas inhauteriak
edo Andramaixak
Plaentxiko herriak
maite ditu JAIKAK.

Doinua: Ama begira zazu



Ignacio Zuloaga B.H. Institutua



Jardiñeta, z/g
20600 - EIBAR (Gipuzkoa)
Tel.: 943 20 83 49 Fax: 943 20 60 48
E-mail: 012055aa@hezkuntza.net
www.ignaciozuloaga.net

BATXILERGOAK

- OSASUN ETA NATUR ZIENTZIEN BATXILERGOA + TEKNOLOGIKO BATXILERGOA
- GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIEN BATXILERGOA
- BATXILERGO ARTISTIKOA
(Deba eskualdeko zentru bakarra)

HEZIKETA ZIKLOAK

GOI MAILAKOA

- INGURUGIRO GOI MAILAKO TEKNIKARIA

ERDI MAILAKOA

- LABORATEGIA

HIZKUNTZ EREDUAK

HEZIKETA A ETA D EREDUETAN

(26 urteko tradizioa klaseak euskaraz ematen)

Datorren ikasturterako

AURREINSKRIPZIOA

Apirilaren 24tik Maiatzaren 5era

MATRIKULA EPEA: Ekainaren 30etik Uztailaren 6ra

SENDABELARREN IKASTAROA

Sendabelarren munduan murgildu nahi badozu
OINTXE DAUKAZU AUKERIA!



Ikasiko doguna: Golpe eta zauriendako bi ukendu

Eguna: EKAINAREN 17xan, zapatua

Lekua: SAN ANDRES elkartian (*lokal sozialian*)

Ordua: 10:00etan

OHARRA: Egun bateko ikastarua izango da baina aurrera begira antolatuko dan ikastaro luziaguaren berri jakinaraziko da.

IZEN EMATEA: Pil-pileanera deituta edo pilkultura@euskalerrria.org helbide elektronikora idatzita (*aurretik izena emanda zaretan ez daukazu berriz emon biharrik*).

antolatzailea



babeslea



Soraluzeko Udala



ELGOIBARKO BH INSTITUTUA

2006/07 IKASTURTEA

Arregitorre, 2
Tel.: 943 74 80 19
E-posta: bulegoa@elgoibarbhi.net
www.elgoibarbhi.net



ERDI MAILAKO ZIKLOAK

Ibilgailuen elektromekanika
Karrozeria, txapa eta pintura
Merkataritza
Erizaintza laguntza osagarriak

GOI MAILAKO ZIKLOAK

Automozioa
Administraritza eta finantzak

Aurrematrikula epea: ekainaren 1etik 7ra

Azpiegitura teknologiko aurreratuena, enpresa simulatuak, lan praktikak Europan, lan munduan sartzeko emaitza ezin hobekak.

ETOR ZAITEZ ETA EZAGUTU GAITZAZU ZURE ERABAKIA HARTU AURRETIK.



Haurren Euskal Jaia

ekainaren **4** an, domeka

antolatzailea



laguntzaileak



babeslea

